

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko ekainaren 22a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Iruñea** • Principe de Vianak dio Gazteluko plazaren itxura ezin dela Karlos IIIrena izan  
**Peio Otano** • «Ganbera eta folk musika uztartzen ditugu Danburia taldean»

## Bestak prestatzen



• MIKEL SAIZ

Lodosako zezen-plazan lanean ari dira egunotan. Nafarroako Gobernuaren araudiko neurrietara moldatu behar dute. Lodosan bezala, Nafarroako herri gehienetan, guzietan ez bada, azken ukituak ematen ari dira jaietako egitarauetan: entzierroetako azken hesiak paratzen, azken kartelak hautatzen... Horrek ez du atzera egiterik. Gaur hasiko dira sanjoanak herri anitzetan, eta, horren ondotik, ia egunero izanen da bisitatzeko bestarik Nafarroan. Eta, parranda gorabehera, bestak antolatzen ari direnen lana ere gogoratu beharrekoa da.





# Iruñea • Terraza estalirik gabeko Gaztelu plaza

Principe de Vianak dio Gazteluko plaza ezin dela Karlos III etorbidearen jarraipena izan



Gazteluko plazan egin ahal diren azpiegitura lanek buruhaustea ematen ari dira Iruñean • JOXE LACALLE

**I**RUÑEKO UDALEKO GOBERNU taldeak, PSNren laguntzaz, bitan bota du atzera Gazteluko plazan lur azpiko aparkalekua egiteko proiektuaren gaineko erreferenduma egiteko proposamena. Lur azpiko aparkalekuko lanak sanfermine ostean hasiko dira, baina ez hasierako proiektuan biltzen zen moduan. Izan ere, Gazteluko plaza Alde Zahararen barnean dagoenez, eta hau multzo historiko artistikoa denez, Principe de Viana erakundeak bere oneritzia eman behar zion proiektuari.

Bada, berriki ezagutzera eman den txostenean, hasierako

**Iruñeko alkate Yolanda Barcinak Karlos III etorbide berrituaren itxurako Gazteluko plaza nahi zuen. Principe de Viana erakundeak asmo hori ezin gauzatzen ahal dela erran du.**

proiektua aldatzea exijitzen dio kultura erakundeak Udalarari. Principe de Vianaren aburuz, «ez dago arazorik lur azpiko aparkalekua egiteko, beharrezko solairu eta plazekin»; bai ordea jarri nahi zituzten terraza estalietan, zuhaitzen lerratzean eta zolu berrian.

Erakundeak debekatzen du

egurrezko terraza estaliak jaritzea «plazaren itxura eta ezaugarrietan aldaketa nabarmena ekarriko dutelako, eta «zerikusirik ez dutelako» espazio horrekin». Era berean, Principe de Vianak ez du onartzen Gazteluko plazan paratu nahi zuten zolua Karlos III etorbide peatonalizatuan jarri

du tenaren jarraipena izatea, «plaza Alde Zaharrean dagoelako eta etorbidea Zabalgunean». Horregatik erakundeak proposatu du «berezko ezaugarriekin eta Alde Historikoarekin bat egiten duen zolaketa egitea».

Erakundearen txostenak ere zuhaitzen lerratzea aztertzen du. Txostenaren arabera, «plazako zuhaitzia ezaugarri berezia da beste hiri batzuetako plazen ondoan, eta, horregatik, ez dago arrazorik banaketa aleatorioa egitea, eta tokiz kanpo dago albotan zuhaitz lerroak landatzea, landaketa perimetrala egin gabe».

Aurki daitezkeen aztarna arkeologikoei dagokienez, Principe de Vianak dio beharrezko azterketak egin behar direla jakiteko non dauden eta zernolako egoeratan. Azterketa horien arabera, behar izanez gero, oinarriko proiektuaren aurreikuspenak aldatu beharko litzateke.

EHk, Udaleko lehen oposizio taldeak, deitoratu egin du txostenean aparkalekuaren eragin kaltegarria ez aztertzeari ihes egin izana. Baina, era berean, ontzat jo du «txostenak Barcinaren ikusmolde estetikoari eman dien zaplastekoa». EHren iritziz, txostenak aldaketak egitera behartzen du eta hori «plaza berritzeko UPNren asmoek modernitatearekin batere zerikusirik ez zutela abisatu zuten pertsonen garaipena da».

→ Asier Azpilikueta

Irurtzun

Euskara plazara

NAFARROAKO GOBERNUA EUSKARAREN kontra egiten ari den politika sutara botako dute bihar, *Euskara Plazara* ekitaldi sorta bukatzeko. Gaur, 22:15ean, Mikel Nazabalek *Annapurnako trekina eta Katmanduko bailara* izenburuko ikus-entzunekoa eskainiko du Foru plazan. Gero, Pettiren kontzertua izanen da Moncloa tabernan.

Biharkoa egun osoko besta izanen da Foru plazan. Eguerdian jokoak izanen dira. Bazkaltzeko paella erraldoia egingen dute, eta bazkalondoan Erramun Martikorenak kantatuko du. Pantha Rey taldeak *Saraba* antzezlan eskainiko du 19:00etan. Gaitari, hankapalo eta zantantzarraren kalejira 22:15ean abiatuko da plazatik, eta gero euskararen dekretuak erreko dituzte.

Iruñea

Arazuriri gorazarre

Iruñeko UDALAK OMENALDI xumea egingen dio Jose Joaquín Arazuri doktore eta historialari zendu berriari. 20:00etan mugarri bana paratuko dute Arazuriren izena daraman pasealekuan. Gero, Panplonesa udal musika bandak kontzertua eskainiko du Takonera parkean. Kontzertuan joko dituzten kantak Arazuriren senideek proposatu dituzte; jaietako kantak dira gehienak, Arazuriren oso gustukoak. Pamplonesak Iruñeko gaitari eta txistulariekin joko du.

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



**E**z da aise aitortzen den kontua. Agian, honetan ere, itzuliguru gutxiago egiten dute emakumeek. «Bai, nerabezaroan egunkari batean idazten nituen nire gauzak».

Ezkutatu egiten da, bekatu ttipiekin egiten den moduan. Aitortu eta gero ere irribarre egiten da gehienetan: «Bada-kizu, adin horretan...». Ongi pentsatuz gero, ergelkeria handia da argiro ez aitortzea; izan ere, ohitura horrek ukitu polita eman diezaioke edozein biografiari, eta ez da ahan-tzi behar artaburu eta ankerrenek ere zirrikitu bat edo beste uzten diotela samurtasunari: Amor de madre.

Hainbeste ahake ikusita, seko harritu ninduen egiaz-tatzeak mundua esaldi bildumazalez josita dagoela. Asko dira eta harro daude. Eta egunkari idazleak ez bezala, esaldi bildumazaleak edozein aitzakia baliatzen du bere aitxorra denen aurrean erakusteko. Ulergarria da. Egun-

## Halakok esan zuen bezala...

karia idazten duenak bere burua islatzen du, eta bildumazaleak beste baten izena aipatu ohi du esaldiarekin batera. Hori bai, entzule hunkituarentzat, bildumazaleak ia egileak adina meritu dauka.

Gaztetatik esaldi, atsotitz edo aforismoak metatzen hasten denak ez du inoiz etsitzen. Bere burua bilatu behar horrek obsesionatzen duenean, lorez apaintzen ditu Gibran, Tagore eta Hesserrenak. Horietan askatasun hitza letraz idatzia agertzen da. Urteak beteta ere GKE batean sarturik baldin bada, esaldiak ez dira sobera aldatuak agertzen. Musika bai, new age pixka bat oso bolumen apalean. Ordea, bizitzaren latzak eszeptikoago bihurtzen badu, beste kategoria bat erdietsiko du, eta Nietzsche eta Greziako klasikoak izanen ditu bidaide.

Politikariak aski luke erretrauekin, baina gehiago nahi du. Saiatuagatik, gauza gehiegi izaten ditu buruan, eta

emaitza kaskarragoak eskuratzen ditu. Hala ere, ekarpen interesgarriak egin dizkiote bentrilokiari.

Adineko bildumazaleen artean unibertsitateko irakasleak eta idazle profesionalak nabarmentzen dira. Ez da harritzekoa, denbora dute eta Borgesi mira egiten diote. Idazle argentinarrak mintzatzeko makina atera zuen batean esan zuen berrogei urte bete eta gero nobelak irakurtzen zituena ergel hutsa zela, eta hitz hauek oinarri harturik, irakasleak eta idazleak erabakitzen dute dakiten guztia erakusteko tenorea dela, eta horrek gaztetu egiten ditu eta larruzko azala duen koaderno bat atera eta egunkaria eta esaldia batzen dituzte.

Zer egingen diogu? Ilusio hori dute. Pentsatzeak horrelakoak ekartzen ditu. Horiek dira beren bidaiak, eta horiek beren diapositibak. Etxean ikusi behar dira. Eguzkiaren argiak instantean belatzen ditu.



# Malerreka ●

## Ahozko tradizioa biltzeko

Mankomunitateak ahozko ondarea jasotzeko beka deialdia egin du

**Malerrekako Mankomunitateak bertako euskarazko ahozko tradizioa bildu eta gizarteratu nahi du: horretarako, ikerketa egiteko beka deialdia egin du. Epea irailaren 28an amaitzen da.**



Malerrekako Mankomunitateak eskualdeko ahozko tradizioa jaso eta gizarteratu nahi du.

● GARI GARAIALDE

**I**KERLANAK MALERREKAKO EUSKARAZKO tradizioa bildu beharko du, eta Mankomunitatearen helburua eginiko lana gizar-tean eta bereziki ikastetxe, euskaltegi eta kultur elkarteetan zabaltzea denez, egiten diren proposamenek hori aintzat hartu beharko dute.

Gainera, ikerketan, besteak beste, honako gai hauek landu beharko dira: lanbideak, ohiturak, sineskeriak, kantak, nekazaritza, azokak, emigrazioa eta desertoreak, jokoak, herri medikuntza, etxeen izenak...

Udalerrri hauek daude Malerrekako Mankomunitatean: Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Labaien, Oitz, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Urrotz eta Zubieta.

**Deialdiaren baldintzak**  
Ikerketa egiteko proposamenak

aurtengo irailaren 28ko 14:15 baino lehen aurkeztu beharko dira, Malerrekako Mankomunitatearen egoitzan (Merkatarien karrika, 17; 31749 Doneztebe). Eskatzaileek nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua, kurrikuluma eta ikerlanaren plangintza aurkeztu beharko dute.

Beka 1.000.000 pezetakoa izanen da, eta berrehun mila pezetako bost epeetan ordainduko da. Lana egiteko epea esleipena egin eta irabazleak onartu eta sinatzen duen unetik hamasei hilabetera akituko da. Hautagaiek erdi edo goi mailako unibertsitate tituludunak izan beharko dute eta EGA edo baliokide den

titulu baten jabe izan. Dena dela, epaimahaiak baldintza horiek betetzen ez dituzten hautagaien proposamenak onartzen ahal ditu. Hautagaiak bakarka edo taldeka aurkez daitezke. Bestalde, deialdiko oinarriek zehazten dutenez, Malerrekako pertsonak lehentasuna izanen dute, puntuazio bera lortzen dutenen artean.

Beka emateko orduan, eskatzailearen kurrikuluma 0 eta 3 puntu artean baloratuko da, eta proiektuaren kalitatea eta bidegarritasuna, aldiz, 0 eta 7 puntu artean. Hautagaiek epaimahaiaren aitzinean aurkeztuko dute egitasmoa eta, izatekotan,

epaimahaiakideen galderei erantzun beharko diete.

Epaimahai hurrengo hauek osatuko dute: Jesus Goldaratz Doneztebeko erretore eta toponimia gaietan adituak, Andres Iñigo Iturengo euskaltzainak, Patxi Salaberri NUPeko irakasleak, Fernando Etxeberria UNEDeko irakasle ohiak eta Anttoni Otxandorena Doneztebeko San Miguel instituko irakasleak. Idazkaria Malerrekako euskara teknikaria izanen da, eta epaimahai burua, Miguel San Miguel, Malerrekako Mankomunitateko lehendakaria.

→ Asier Azpilikueta

**herri aldizkariak**  
Eduarne Elizondo

## Gure Txokoan zuzendaritza berria

Gure Txokoa elkartearen berri dakar **Ttipi-ttapa** aldizkariko azken zenbakiak, Herri izeneko bere atalean. Asier Gogortza kazetariak sinatu albisteak dioenez, Berako elkarte horrek zuzendaritza berri du, eta herriko gazte talde baten esku geratu da. **Ttipi-ttapan** azaltzen dira Gure Txokoaren hurrengo asmoak zeintzuk diren.

«Joan den ekainaren 1ean lamotenean egindako batzarrean hurrengo bi urteetan zuzendaritza batzordea osatuko duten kideak aurkeztu ziren. Bertan 20 baz-

kide bildu ziren, eta orain arte zuzendaritzan egon diren kideek lekukoa pasatu diete berte sei gazte hauei».

«Ander Altzuri izanen da elkarteko lehendakari berria, Iñaki Iriarte, Iñaki Goia eta Gorka Ibargoi, berriz, lehendakariordeak, eta idazkari lanak Joseba Lasarte eta Raul Garciak egingen dituzte. Kultura sailean Gorane Artieda sartuko da zuzendaritza berriarekin batera eta gainerako lanetan orain arteko bazkideek segituko dute».

Elkarteak dituen asmoen artean web

orria egitea da nagusietako bat, **Ttipi-ttapa** azaltzen duenez: «Zuzendaritza berriko kideek adierazi digutenez orain arteko lanak mantentzeaz gain Gure Txokoa Eguna antolatzea eta elkartearen web orria prestatzea izanen dira asmo nagusietako bi. Horretaz gain bazkideentzat aktibitate desberdinak antolatzea eta gazteentzat kirol ekitaldiak bultzatzea ere burutan dute. Gure Txokoa osatzen duten bokalia guzietan harremanak sendotzea litzateke berte helburuetako bat».



**urdai  
aren  
mintzoa**

Xabier Larraburu

### Yang da!

Takoneran paseatzen nebilela gertatu zait. Cedrus superba (zedro arrunta) baten aurrean gelditu eta bat-batean, goiko adar ilun horietan erantzuna aspalditik ezkutatuturik balego bezala, ardoa ez dela ying baizik eta yang ulertu dut boteprontoan. Nola bestela? Yang da. Arto, babarrun eta erabat frijitutako tipulen antzera! Yang! Yang! (ez Ying, orain arte uste genuen moduan.) To argialdia! To jakien ulermenean iraultza erabatekoa! Eta segituan Einsteinek gogoratu naiz, eta berak Alemaniako zuhaitz bati begira argiaren benetako izaerari buruz izan zuen intuizioaz. «Ni bezala. Igual iguala», pentsatu dut. Eta memento horretan sikiera Einsteinek zehazki zer sentitu zuen sentitzeko aukera izan dut, eta, aizue, oso sentsazio ederra eta kuriozoso da: pentsatzea munduan memento horretan zeu zarela egia horren zaindaria bakarra!, ulertzea zu gabe bizitzerik ere ez zuela izango! Jakitea ideia hori hortxe jaio dela, zedroaren oinetan lurra hartu duela, ideia guztiz garbia dela (oraindik), pentsamendu biluzi biluzia!... Baina, noski, seguru nago zuetako askok dagoeneko zalantzan jarriko duzuela nire aurkikuntza eta, «hara! Makrobiotiko guztien ondorioak ukatze- ra dator gaurkoan!», eta horrelakoak botatzen hasiak izango zaretela. Seguru nago zuetako gehienak «proba ezazu!» edo «ea bada: frogak!» eskatzen hasiak izango zaretela. Seguru nago zuetako batzuek, ankerrenek, bekaiztuenek «horrek ez du Einsteinen esperientziarekin alderatzerik!» esango duzuela. Alferrik ari zarete, ordea. Telebistako iragarki batean dioten moduan: ez dago ideia berri bat geldiaraziko duenik! Eta ardoa Yang dela (eta ez Ying) historian aurrera joango da (zuen gainetik), eta liburuetan horrela idatziko da, eta Interneten paratuko dute, eta munduko mila inpresoratan inprimatuko da (baldin eta kartutxoak beteak badituzte), eta inork ezin izango du, inon, ideia berri hau gelditu! Hegan dabil! Ideia hutsen mundutik dagoeneko askatu da, eta badoa! Opa diezaigun etorkizunik argiena! Ardoa Yang da! (eta ez Ying). ●



# Bestaz gozatzeko, bestak antolatu

**H**ERRIKO JAIK ARRAKASTA IZAN DEZATEN, egun egokietan egitea da garrantzitsua. Hori da antolatzaileek gainditu beharreko lehen oztopoa, eta ez nolanhikoa. Olaguen, Anue ibarreko herriburuan, gaur hasiko dituzte bestak, ekainaren 24ko San Joanarekin. Baina garai batean abuztuan egiten ziren, hilaren 19ko San Joanarekin. Kontua da olaguetarrak ez zudelako gustura egun horrekin. «Urtero eguraldi txarra egiten zuen, beti euria», erran du Txari Eleta olaguetarrak. Eta abuztuan euria egiten zenez, ekainera aitzinatu zituzten bestak. Eta, noski, ekainean ere euria egiten die.

## Egunekin bueltaka

Zenbait herritan modu demokratikoan aldatzen dituzte egunak. Etxarri-Aranatzen iaz herri kontsulta egin zuten. Kontua da aste-beteko bestak dituztela eta abuztuko lehen asteburuan hasten zirela; baina, noski, asteburua 7an hasten bazen, bestak 14an bukatzen ziren; eta hori berandu zen gero oportetara lasai joateko. Horregatik, etxarriarrek erabaki zuten bestak abuztutik gertuen daogen asteburuan hastea. Aurten abuztuaren 4an hasiko dira.

Lekunberrin etxarriarren bide horretan dira. Jai egutegiko azkenak dira Lekunberrikoak, urriaren 12ko ama birjinarekin egiten baitituzte, eta horrek, halaber, euria eta hotza dakartza. Udalak inkesta egin du herritarren artean eta %54k erran dute besta nagusiak abuztura aurreratu behar direla, eta Pilarrekoak besta tiki bezala gorde. Litekeena da aldaketa hori heldu den urterako uztea. Udalak inkestako datuak ongi aztertu behar ditu, eta gero herri kontsulta egin egun egokia aukeratzeko.

Eta, batzuetan, data ona direnak «egokitu» egin behar dira. Lodosan uztailaren 30etik abuztuaren 4ra egiten dituzte bestak.



Herri tikiak egitarauan ezinbestekoa dira dantzarien emantaldia, eskulangile azoka, bertako produktuak dastatzea eta musika —dela txarangena, dela orkestrera—. Irudian, Doneztebeko jaiak, ekainaren 28an ospatzekoak. ● TIPI TTAPA



● MIKEL SAIZ

Baina, aurten horrela eginez gero, bestak larunbarekin bukatuko liriteke, eta horrek igande «grazirik gabea» ekarriko luke. Alberto Garrido jaietako zinegotziak erran duenez, Hori dela eta, iganderaino izanen dituzte jaiak lodosatarrek. San Emeterioren eta San Zeledonioren omenezko besten arrekontuak 16 milioi pezeta ditu.

## Dena prest Lodosan

Garridok dioenez, «kasik urte osoa» ematen dute bestak antolatzen. «Bestela, deskuidatuz gero, orkestrarik eta haurrentzako puzgarririk onenak galtzen dituzu». Garridok jai batzorde baten laguntza du. Lodosako bestetan egunero izanen dituzte entzierroa, herri hamaiketako, udal bandaren kontzertua, Japoniako bonbak, haurrentzako puzgarririk, zezensuzkoa eta orkestrak. Eta ekitaldi erlijiosoak: prozesioa, salbea eta riau-riaua.

Garridorendako, asteartean patriaren omenez egiten den meza da ekitaldi nagusia, «eta entzierroak, noski». Lehen, bigantekin egiten zituzten entzierroak. Baina iaz txekorekin egiten zituzten. «Izugarrizko arrakasta izan genuen», erran du Garridok. Zortea ere izan zuten. Bigantxen prezioen igoerak ez ditu harrapatu. Entzierroez landara, hainbat zezenketa egiten dituzte Lodosan. Horretarako, egunotan zezen-plazan lanean ari dira, Nafarroako Gobernuak araudiaren arabera moldatzeko.

Lodosako besten egitarauan gauza tiki batzuk gelditzen dira zehazteko, hala nola, hamaiketakoetako janari kopurua eta haurren egunean txoko-

Gaur hasiko da udako besten garaia, eta nabaria da herrietako antolatze makina bat modu dagoela

**Bihar hasiko da, sanjoanekin batera, besta patroidunen den ongi pasatzeko ordua da, baina jaiak murgilduko denak jakin beharko luke zurrunbiloaren gibelak dela nahikoa lan. Jai batzordekoek, batzorderik izatekotan, ehunka buruhauste jasan behar izango dituzte herriko bestak benetan zoriontsuak izan daitezen. Bestak antolatu eta gero, bestaz gozatzeko besterik ez da gelditzen.**

latea nork egingen ote duen. Egitaraua inprimategira laster bidaltzea espero du Garridok. Eta kartel lehiaketa heldu den astean abiatuko dute.

## Antolatzaile bakarra Olaguen

Dena prest Lodosan, eta dena prest Olaguen ere, bestak asteburu honetan izanen baitira. «Inguruko lehenbiziko bestak izaten direnez, nahiko giro polita sortzen da», dio Txari Eletak. Olaguen, baina, ez da jai batzorderik izan, ezta hurrik eman ere. «Olague bi auzotan banaturik dago, goikoa eta behekoa», esplikatu du Eletak. «Auzo bakoitzetik mutil eta neska bana hartu behar da, eta horiek izanen dira maiordomoak, besta antolatzeko arduradunak. Adinez aurreko urteko maiordomoa baino gazteago denak hartzen du lekukoa».

Baina neska aspaldi bukatu ziren. Hasi ziren errepikatzen, eta hori ere bukatu zen. Eta aurten maiordomo bakarra dago, Aitor Senosiain, eta berak egin behar izan du lan guzua. «Eskertrak mutilak bukatu ez zirenez», erran du Eletak. «Izan ere, mutilen lana izaten zen ekitaldiak antolatzeko, leku batera eta bestera deitzea, orkestrak lortzea... Nesken lana, ordea, oso bestelakoa izaten zen, txapelketetan musuak eta trofeoak banatzea, eta goizeko erondan pastak ateratzea».

«Dena galtzen ari da», dio Eletak burumakur. «Goizeko erronda ia ez da egiten, eta pastak ez dira ateratzen. Maiordomaren ohitura gutinaka galtzen ari da. Oraingo gazteak ez dira herriko saltsan sartzen, ez dituzte antolatu nahi herriko bestak. Ez dago baten gogorik. Ez dakit hurrengo urtean zer gertatuko den. Olague hiltzen ari da».

Dena dela, aurten bestak izanen dituzte. Gaur bertan afari autogestionatua izanen dute frontoian, hau da, bakoitzak ahal duena eramanen du. Bihar goizean erretiratuentzako gosaria egingen dute, eta arratsaldean, aizkora apustua: Aitor eta Antonio Senosiain, Joxe Juan Barberena eta Juan Telletxearen



● MIKEL SAIZ

kontra. Ondoren, dantzaldia, Tximeleta taldearekin. Eta igandean, meza, haurrentzako jokoak, pilota partidak, txistor jatea eta musika. «Ez dago deus berezirik; urtero egiten da gauza bera», azaldu du Eletak.


## Arraiozen, beti antolatzaile berberak

Lodosan jai batzorde instituzionalizatua dute. Olaguen txandaka egiten dute. Eta Arraiozen beti lagun talde bera izaten da bestak antolatzen, Juan Carlos Mortalenak erran duenez. «Nahiz eta urtero bilerara de-

itzeko paper batzuk paratzen ditugun, beti elkar-tzen gara jende berbera, 12-14 lagun. Nire ardura bazkaria enkargatzea eta txartelak saltzea da. Bertze batek Grand Prix-a antolatzen du, bertzeak orkestrak kontratatzen du, bertzeak edariak enkargatzen dituzte... Denen artean egiten dugu.

Badago jendea igual 15 bat urte bestak antolatzen daramatzana». Aurtengo bestak abuztuaren 31tik irailaren 3ra izanen dira.

Arraiozen garrantzi handia ematen diote musikari. Mortalenak adierazi duenez, ortziraletan beti orkestra «merke» bat ekartzen dute (aurten, Jalisko Band); larunbatean, orkestra «ona» (Joselu Anaia); igandean, orkestra



● MIKEL SAIZ

«polita» (Gozategi eta Erramun Martikorena), eta astelehenean, akordeoia. «Ez dugu bozketarik egiten, baina, jeneralean, jendeak nahi duena ekartzen dugu, orkestra onak: Egan, Minxoriak, Niko Etxart, Akelarre...».

Musikaz gainera, Arraiozko bestetan bada jende ugari ekartzen duen ekitaldia: Grand Prix delakoa. «Telebistakoaren gisako

koa da, baina hemengo gauzeekin. Adibidez, mutiko batek hanka tar-tean azenario luze bat hartu eta bertze bati pasatu behar dio, horrek bertze bati eta gero botila batean sartu. Edo bi lagunek arropa kendu behar diote elkarri eta tendero batean paratu, baina bigantxa bat barnean dagoela. Urtero aldatzen ditugu probak. Eta urtetik urtera jende gehiago heldu da Arraiozera».

Bestela ere, Arraiozko bestetan urte batetik bertera gauza berberak egi-

ten dituzte, ez dituzte aldatzen. Aurten ere baztan zopak egingen dituzte. Eta izanen dute musika ona. «Diru dezente gastatu behar dugu», erran du Mortalenak. «Milioi eta erdia baino gehiago. Baina Arraiozen zorte ikaragarria dugu, etxeko borondatea eskatzen joaten gara, eta diru puska bat lortzen da. Jendea arras ongi portatzen da. Ongi, ongi. Igual herriko jendeak ematen duenaren orkestrak pagatzen ditugu». Eta herriak ematen duena besta moduan itzultzen zaio herriari.

## Asier Azpilikueta



Aitor Senosiaini (irudian, Antonio anaia iraguntzen) Olagueko bestak bakarrik antolatzea egokitu zaio aurten. ● KOLDO ALDUNTZIN

## Kartelak, jaiak iragartzeko

KARTELA BESTEN OSAGAI GARRANTZITSUA DA, jai noiz izanen den eta zer-nolako ekitaldiak bilduko dituen iragarri behar baita. Herri xumeetan nahikoa dute kartelean egitaraua paratzearekin. Baina beste batzuetan Udalak lehiaketa abiatzen du jaiak iragartzeko margolanik onena aukeratzeko. Lehiaketa horietako parte-hartzeak gorabehera anitz izaten du. Adibidez, Tafallakora 25-35 lan aurkezten ziren normalean. Baina iaz hamahiru lan besterik ez zituzten hartu. Eta aurten, zazpi. Zazpi horiek erakusketak paratu du Udalak kultur etxean. Bisitariak botoa eman dezakete eta, hori kontuan hartuz, epaimahaia erabakiko



● JOSU SANTEBERAN



● MIKEL SAIZ

Tafallako kartel lehiaketako lanak, kultur etxean. Goian, aldiz, Iñaki Fernandez Iturbide, kartel lehiaketako txapeliduna.

du nork eramanen duen 125.000 pezeta-koko saria. Margolan irabazlearekin kartelak eta eskuko egitarauen azalak ilustratuko dituzte.

Sarien kopurua ere asko aldatzen da leku batetik bestera. Konparazioe, Zangozako eta Atarrabiako udalek 100.000 pezeta ematen dizkiote euren lehiaketako irabazleei. Antsoingo Udalak, 70.000. Eta Azkoienako, 30.000.

Lehiaketa hauetara anitzetan jende bera aurkezten da. Iñaki Fernandez Iturbide San Adriango kartel lehiaketa irabazi berri du. Fernandezek 80 bat lehiaketa ditu irabaziak kartelekin hasi zenetik, duela hamar urtetik hona. Mundu berezi honetako txapeliduna da. Eta berarendako zaletasuna besterik ez da, sarien kopurua tiki baita. Sanferminetako eta Fernandez Nafarroan falta zaion bakarretakoa.





## Seme prosaikoak

**Poesia.** Bat nator **Joxetxo Azkona**-rekin: egungo mundu prosaikoan gastronomia da gure bizitzetako alorrik poetikoena. Adibidez, batere zalantzarik gabe, Baserriko foie eta ziza pintxo batek, gorputza ez ezik, arima ere elikatzen du. Esaterako, duda izpirik gabe, Fiteroko bakailaoz beteriko pikilloko piper pintxoak da —kostaldeko kresalaren garraztasunaren eta barrualdeko lur emankorren goxotasunaren uztarri— Euskal Herriaren arimaren erretraturik hobereena: maite ditut maite zure bazterrak koipeak ezkututzen dizkidanean...

Nolanahi ere, aitortu beharra daukat nik prosatik gertuago dagoen poesia gastronomikoa dudala nahiago, biluziagoa, edergarri gutxiagokoa, zuzenean erraierara heltzen dena, barruak hankaz gora jartzen dizkizuna. Nahiago dut Monte Carloko odolki eta tipula frijitu pintxoak, Baserriko edota Fiteroko sukaldeetatik ateratako sonetorik landuena baino. Aitorpenekin hasita, aitortu beharra daukat insomnio gauetan gure logelako leihoaren alboan zutik foru hiriburuko gau ilun geldoari so nagoelarik behin baino gehiagotan malxo bihurri batek ihes egiten didala nire begi gorrituetatik, Urrizelkiko gibelatxoaren oroimenez. Goian beude.

Horregatik guztiagatik, haurrak jotzearen aurkakoa banaiz ere, joan den igande gauean Juan Kruz gure semerik zaharrena jo nuen. Ez zen kolpe gogorra izan. Kokotean eman nion, eskua zabal-zabalik nuela. Inoiz, txantxetan, modu eta toki



Baserri tabernako pintxoak, arima elikatzeko.

berean kolpe handiagorik eman diot. Baina kasu honetan ez nintzen txantxetan ari. Kolpea indarge baina benetan eman nion. Niretzat guztiz ezberdina izan zen. Nago berarentzat ere guztiz ezberdina izan zela.


**Prosa.** Testosterona elkarretaratzeekiko jarrera kontraesankorra dut. Bate-tik, biziki maite ditut Gerardo bikotekide dudalarik egunero bazkalondoan jokatzen ditugun partidak. Bestetik, ez ditut batere gustuko futbolaren inguruko pilaketa zakildunak. Nik neuk joan den igandean ez nuen Osasunaren eta Realaren arteko partida ikusiko. Aitzitik, Jon tematu zen. Jon, gure semerik zaharrena. Orain gutxi arte aita eta aitona bezala Juan Kruz deitzen zena. Ikastolako ira-



Euskalerrira irratiko esatariak, Sadarren.

kasle talibanen batek burmuin garbiketa egin eta gero zuen izen ezin iruindarra-goari uko egin eta bere burua Jon birbaitaiatu duena. Juan Kruz deitzen badut haserretu egiten zaidana.

Euskararen onerako, partida Euskalerrira irratiko bi esatari totelen —**Iratz Arregi** eta bestea— ahotik segitzea proposatu nion. Semeak, partida Sadarretik at jokatzen zenez, 91 kaketx 4an kontakizunik ez zela izaneren erantzun zidan. Hala, semea eta biok Monte Carlora jai-



Joxetxo Azkona, kazetari eta idazlea.

tsi ginen, taberna mukuru betetzen zuten beste hiruzpalau dozena zakildun bezala.

Gauzak ongi hasi ziren. Jonek coca-cola nahi zuen, eta biok edabe bera edan genuen. Semeak, jakina, kafeinarik gabea, eta nik, noski, *complet*, ron txorrotada eta guzti. **Angel Luisek** atea hutsik zegoela huts egin zuenean, semeari **Balinez** hitz egin nion. **Sanzoli** baloiak esku artetik ihes egin ziolarik, semeari **Barandikaz** aritu nintzaion. **Rosadok** gola sartu zuelarik, **Irigibelez**, eta **Orejuelaz**, eta **Bosmedianoz**. Partida amaitu eta Osasunak mailari eustea segurtatu zuenean, ospatzeko, semeari Monte Carloko pintxo guztien artean nahi zuena aukeratzeko esan nion. Fritos poltsa aukeratu zuen. Jo nuen. Garai txarrak poesiarako.



## panpilonia zirkus

Pello Argiñarena

### Aurreko momenticoak

Maiatzak 17, osteguna, 11:00, Sarasate pasealekua. Ordu pare bat beranduago bada ere, azaldu da noizbait kamioia. Tonbolako kideak ziztu bizian hasi dira burdina guztiak deskargatzen.

Ekainak 5, asteartea, 09:30, Teobaldos kalea. Alonso dendako erakusleihotik udaberriko modeloak kendu dituzte. Orain, prakak, gona eta alkandora zuriez gain, zapi eta gerriko gorriak paratzen ari dira. Sanfermines, Sanfermines, Sanfermines.

Ekainak 9, larunbata, 23:00, Zezen-plaza. Eurria dela eta, bi orduz atzeratu da peñek antolaturiko jaialdia. Oholtza gainean Hemendik At! taldea. Geroago, Marea eta Su Ta Gar.

Ekainak 11, astelehena, 10:00, San Ignazio etorbidea. Helvetia Seguros aseguru etxean bilera egiten ari da zuzendaritza batzordea. Aurten ere haien eskuetan dago entzierroetan gerta daitezkeen kalte eta istripuen kudeaketa.

Ekainak 13, asteazkena, 08:00, Duque de Ahumada kalea. Azpiegitura ataleko udal langileak egurrezko hesiak paratzen hasi dira. Hemendik bi astera, Mercaderesen, Udaletxean eta Santo Domingoko al-dapan lan berbera egingen dute.

Ekainak 15, ostirala, 22:00, Kale Nagusia. Garcia tabernan bildu da Iruñezar euskaltegiko bigarren urratseko taldea. Ergatiboarekin borroka bizian ari dira afaltzen duten bitartean. «Nik sanferminaketa Alpeetara joango dut», dio batek. «Jaietan Iruñean gelditu ni», erantzun besteak.

Ekainak 20, asteazkena, 11:00, Descalzos kalea. Erraldoien Txokora, Udaleko Kultura Sailaren egoitzara, iritsi dira inprimategitik 2001. urteko sanferminen egitarau ofizialak. Berrikuntza handirik ez; dena den, kaosak ez du inoren programaziorik onartzen.

Ekainak 26, asteartea, 16:00, Armada etorbidea. Errepidea konpontzen hasi di-

ra duela gutxi, eta bidea estutu egin dute. 37 gradu, trafiko izugarria, makinaren zalaparta. Jaiaren aurretik hiria hankaz gora jartzea aspaldiko ohitura da Iruñean.

Ekainak 28, osteguna, 18:00, Arrotxapeko auzoa. Salamancatik ekarritako Cebada Gago ganadutegiko zezenak Gaseko ukui-letan daude beren etorkizun ezezagunaren zain.

Ekainak 30, larunbata, 21:00, Mercaderes kalea. Txalo zaparrada izugarria jaso du malabarista gazteak. Jendearen artean, Oklahomatik etorritako turista taldea, argazki makina lepotik zintzilik dutela.



Badatoz, badatoz sanferminak.


Uztailak 5, osteguna, 23:00, benetako bezpera, Tajadura jaunaren etxea. San Antonioko presidentea urduri dago salako ispiluaren aurrean. Behin eta berriro ari da errepikatzen bihar oihukatu beharrekoa. Euskarazko zatiarekin oraindik nahiko lan dauka: «Iruindarrok, gora San Fermin!».



Peio Otano  DANBURIA MUSIKA TALDEKO KIDEA

# «Ganbera eta folk musika uztartzen ditugu»

Txikitatik Iruritako Francisco Obregozok aitatxi eta aita ferratzaile lanetan ikusi zituen, eta, denboraren poderioz, berak ere lanbidea ikasi zuen. Egun, lan hori betiko uzteko gutxi falta du.



● MIKEL SAIZ

soslaia

TEMPOMOBILE DANTZA TALDEKO kide da Peio Otano, eta, horretaz gain, Danburia musika taldeko kide eta bultzatzaile. Duela urtebete sortu zen Danburia, eta, Otanoren hitzetan, ganbera eta folk musika uztartzen ditu. Pirinioetako dantza soinuak aditzera ematea da taldearen asmoa.

Betiko euskal soinuak modu berri batera moldatuak aurkezten ditu Danburia taldeak. Orain arte emandako kontzertuetan jendearen harrera oso ona izan dela azpimarratu du Otanok, eta Pirinio osoko kantak zabaltzeko lanean jarraitzeko asmoa dutela gaineratu du.

■ **Nola sortu da Danburia?**

Gu soka laukote bat gara, apur bat berezia: biolontxelo jole bat dago, biolina jotzen duena, beste neska batek bandurria eta lautea jotzen ditu, eta nik txirula, flauta eta perkusioa. Elkartu ginen joan den urteko udan, proba moduan, Murtzian jaialdi batean parte hartzeko, eta ikusi genuen sortu genuen soinua interesgarria izan zitekeela guretzat eta entzuleentzat, eta jarraitu dugu ildo horretatik.

■ **Nolakoa da sortu duzuen soinu hori?**

Nire hasierako asmoa zen XIX. mendetik gaur arte heldu zaizkigun dantzekin erreperatorioa osatzea. Horrekin batera, euskal musikan oinarrituta zeu-

den dantzak landu nahi nituen, Pirinioetako jauziak edo inauterietako dantza bereziak, adibidez. Beraz, landu nituen bi dantza multzo, eta gero batu nituen. Sortu den erreperatorioa nahiko interesgarria da.

■ **Nola landu dituzu dantza horiek?**

Ez gara fanfarre bat, eta horrek baldintzatzen du harmonizazioa. Biolontxeloa, biolina eta bandurria erabiltzeagatik, gure harmonia berezia da. Dantza ezagunek

ezberdin dirudite guk jotzen ditugunean. Soinuak berdina dira, baina azken moldea bestelakoa da. Jendea harritu egiten da aurrenekoz entzuten gaitueganean, baina gustuko duela uste dut. Kontzertuetan harrera ona izan dugu orain arte.

■ **Zein da zuen lan horren helburua?**

Gaur arte ikertu diren musika eta soinuak berreskuratzea. Soinu asko bilduta daude libu-

Peio Otano iruindarra euskal dantza tradizionalen eskutik sartu zen dantzaren munduan; Iruña taldean ibili zen lehendabizi, eta beste hainbat taldetan gero; egun, dantza garaikidea lantzen du Otanok, Tempomobile konpainiaren baitan.

Musikarako zaletasuna ere txikitatik datorriko Otanori. Irubideko abesbatzan abestu zuen, eta gero, kontserbatorioan hasi zen flauta ikasten. Orain, Danburia taldearekin asetzen ditu esparru horretako bere kezkak.

Danburiarekin, hain zuzen ere, hainbat kontzertu emanen ditu Peio Otanok udan, besteak beste Lizarran eta Altsasan.

rutan, baina hilda daude, ez dira entzuten. Berriz plazaratu nahi ditugu guk, beste modu batera. Asmoa zen XIX. mendeko erromantizismoan sortu-

riko musikaren bertsio berria ematea. Ez gara orkestra handia, ezta fanfarrea ere. Nik esaten dut ganbera eta folk musiak uztartzen ditugula. Ganbera



● LARRION Y PIMOULIER

musika da, baina gaia herri musika da.

■ **Orain arte nolako edo nongo musika landu duzue?**

Orain arte Euskal Herriko Pirinioetan izan diren soinuak landu ditut. Esparrua zabaldu nahi dut, Pirinio osora, Pirinio osoko dantza, kanta eta musika instrumentala landu. Lan asko dago eta pausoka egin beharra dago, pixkanaka-pixkanaka. Orain arte landu ditut dantzak, dantzaria naizelako: XIX. mendekoak, Nafarroa Behereko edo Zuberoako inauterietako dantzak eta abar.

■ **Zergatik erakartzen zaituzte hainbeste Pirinioetako musika eta dantzek?**

Zonalde ederra da, batetik, eta ohartu naiz dantza-musika mota berezi bat dagoela, berpizkundean oinarritua. Horiek dira jauziak, edo kontrapasak. Soinu horiek oso aberatsak dira. Batetik, oso antzekoak dira, eta, aldi berean, bakoitzak tokian tokiko, izaera berezia du. Ez dugu ahaztu behar, halaber, Pirinioetan musika tresna berezi bati eutsi diotela, danburiari, hain zuzen ere. Hori guztia oso interesgarria iruditzen zait, eta landu nahi nuen ezagutzera emateko.

■ **Danburiaz gain, beste-lako proiektutan murgilduta zabilta; Corpus Christi eguneko tradizio zahar bat berreskuratuta da aurten, Infanticoen dantza, eta zuk parte hartu duzu.**

Bai musikan, bai eta dantzan ere, lantzen dut berpizkundeko eta barroko garaiko estetika eta folklorea, eta bietan sartzen ditut ikasitako gauzak. Corpus Christi eguneko Infanticoen dantza horretan ere nabaritzen da kutsu hori. Nire lana izan da dantza hori irakastea parte hartu zuten haurrei. Katedralean dantzatzen den pieza da.

→ Edurne Elizondo



